

BEDERATZIGARREN ORDENANTZA FISKALA

ESTOLDERIA ETA UR HARTUNEAREN ZERBITZUAK ESKAINTZEAGATIKO TASA

I.- IZAERA ETA ARRAZOIA.

1.- Artikulua.- Bizkaiko Lurralde Historikoko 5/89 Foru Arauak, Ekainaren 30ekoak, horrek arautzen baititu Toki Ogasunak, emandako ahalmenak erabiliz, Udal honek estolderia eta ur hartunearen zerbitzua eskaintzeagatik kobratuko den Tasa ezartzen du eta hori Ordenantza Fiskal honek aratuko du.

II. ZERGAPEKO EGITATEA.

2. Artikulua.-

a).- Udal jarduera, bai tekniko bai administratiboa, baldin eta horrekin egiaztatu nahi bada, udal estolderiaren sarera lotzeko baimena eman dadin beharrezko balidintzarik badagoen.

b) Iraizkinak, euri-urak, ur beltzak eta zikinak, udal estolderiako sarearen barnera, hustutzeko eskaintzen den zerbitzua eta horien arazketa egiteagatik eskaintzen dena.

c) Udal jarduera, bai tekniko bai administratiboa, baldin eta horrekin egiaztatu nahi bada, etxebizitza eta lokaletarako ur hartunearen baimena eman dadin beharrezko balidintzarik badagoen.

III. SUBJEKTU PASIBOA.

3. Artikulua.-

1.- Zergadunak izango diren subjektu pasiboak izango dira, bai pertsona fisikoak edo juridikoak bai Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergaren gaineko Foru Arauak aipatzen dituen entitateak, kasu hauetan:

a) Estolda-sare eta ur-sare hartunereako lizentzia ematen denean, horren jabeak, usufruktudunak, edo finkaren titularitatea edo onurazko jabaria duenak.

b) Aurreko artikuluko b) ataleko zerbitzuak eskaintzen diren kasuan, udal barrutiko finkak okupatzen edo erabiltzen dituztenak, baldin eta zerbitzu horien onuradun badira, edozein delarik ere horien titulua: bai jabedunak, bai usufruktudunak, bai habitazionistak bai maizterrak, baita titulu horiek prekarioan badira ere.

2.- Edozein modutara, inmueble horien jabea subjektu pasibo gisa hartuko da, hain zuzen ere, lokal edo etxebizitzaren okupatzaile edo erabiltzailearen ordezkia, jabedun horiek bestalde, zerbitzuaren onuradunak direnen gainean kargatu ahal izango dituzte ordaindutako kuotak.

IV. ARDURADUNAK.

4. Artikulua.-

1.- Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergaren gaineko Foru Arauak aipatutako pertsona fisiko eta juridikoek, subjektu pasiboek dituzten zerga-obligazioen gainean, solidarioki erantzungo dute.

2.- Ordezko erantzunkizuna izango dute, bai sozietateetako administratzaileek, bai sindikoek, bai porrotetako, lehiaketetako, sozietateetako eta orokorrean edozein entitateetako kontuhartzaile edo kitatzaileek, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergaren gaineko Foru Arauak adierazitako kasuetan eta eskumenetan.

V. ZERGAREN KUOTA.

5. Artikulua.- Zerbitzu horiek eskaintzeagatik, hurrengo tarifa aplikatuko da:

TARIFA

<i>A) Estolderia sareko hartunea</i>	
1.- Etxebizitza	129,80
2.- Lonja	116,20
3.- Industriak, oro har, 5 langile baino gutxiagokoak	116,20
4.- Industriak, oro har, 6 eta 10 langile artekoak	193,90
5.- Industriak, oro har, 11 eta 25 langile artekoak	309,00
6.- Industriak, oro har, 26 eta 50 langile artekoak	464,00
7.- Industriak, oro har, 51 eta 100 langile artekoak	696,00
8.- Industriak, oro har, 101 eta 200 langile artekoak	1.005,40
9.- Industriak, oro har, 201 eta 350 langile artekoak	1.314,30
10.- Industriak, oro har, 351 eta 500 langile artekoak	1.700,10
11.- Industriak, oro har, 501 eta 750 langile artekoak	2.086,80
12.- Industriak, oro har, 751 eta 1000 langile artekoak	2.473,00
13.- Industriak, oro har, 1001 eta 1500 langile artekoak	3.091,30
14.- Industriak, oro har, 1501 eta 2000 langile artekoak	3.864,10
15.- Industriak, oro har, 2000 langile baino gehiagokoak	4.636,90
16.- Gainerako lokalak	68,00
<i>B) Estolderia erabiltzeagatiko tasa (m³)</i>	0,10
Hiruhilekoko 25 m ³ -ko gutxieneko kuota, gainerakoa unitate tarifaren arabera kargatzen dela	2,50
<i>C) Hartuneak:</i>	
1.- Banakakoak	177,70
2.- 14 etxebizitza baino gutxiagoko eraikinak	355,50
3.- 15 eta 24 etxebizitza arteko eraikinak	711,10
4.- 25 eta 34 etxebizitza arteko eraikinak	1.066,70
5.- 35 eta 44 etxebizitza arteko eraikinak	1.750,60
6.- 45 eta 54 etxebizitza arteko eraikinak	2.188,20
7.- 55 eta 64 etxebizitza arteko eraikinak	2.625,80
8.- 65 eta 74 etxebizitza arteko eraikinak	3.036,00
9.- 75 etxebizitza baino gehiagoko eraikinak	3.418,90
10.- Industriak, oro har, 5 langile baino gutxiagokoak	177,70
11.- Industriak, oro har, 6 eta 10 langile artekoak	296,70
12.- Industriak, oro har, 11 eta 25 langile artekoak	472,70
13.- Industriak, oro har, 26 eta 50 langile artekoak	709,30
14.- Industriak, oro har, 51 eta 100 langile artekoak	1.064,40
15.- Industriak, oro har, 101 eta 200 langile artekoak	1.537,50
16.- Industriak, oro har, 201 eta 350 langile artekoak	2.010,10
17.- Industriak, oro har, 351 eta 500 langile artekoak	2.600,20
18.- Industriak, oro har, 501 eta 750 langile artekoak	3.191,70
19.- Industriak, oro har, 751 eta 1000 langile artekoak	3.782,30
20.- Industriak, oro har, 1001 eta 1500 langile artekoak	4.701,20
21.- Industriak, oro har, 1501 eta 2000 langile artekoak	5.909,60
22.- Industriak, oro har, 2000 langile baino gehiagokoak	7.091,80
23.- Gainerako lokalak	68,00
1/2"ko diametroa	341,40
1"ko diametroa	390,20

1 1/2"ko diametroa	439,00
2"ko diametroa	487,70
Diametro handiagoa	585,40
E) Edateko ura hartunetik moztea, matxurak premiaz konpontzeko	170,80

VI. SALBUESPENAK ETA HOBARIAK.

6. Artikulua.- Tasaren ordainarazpenean ez da inolako salbuespenik ez hobaririk emango.

VII. Sortzapena.

7. Artikulua.-

1.- Zergapeko egitatea osatzen duen udal jarduerari hasiera ematen zaionean sortzen da tasa hau eta orduan jaiotzen da ordaintzeko obligazioa, eta horri hasiera eman zaiola ulertuko da:

- a) Hartunearen lizentziari dagokion eskaria aurkezten den datan, baldin eta subjektu pasiboak hori esanbidez formulatuko balu.
- b) Hartunea estolda-sare edo hustubideari eraginkorki lotzen zaion unetik aurrera. Tasaren modalitate honen sortzapena edozein modutara gertatuko da, bai hartunearen lizentzia lortua izan bai lizentzia hori lortua ez izan, eta horrek ez dio kalterik eragiten bestalde, hori baimentzeko izapidetu daitekeen administraziooko espedienteari.

2.- Iraizkinak, euri-urak, ur beltzak eta zikinak udal estolderiako sarearen barna hustutzeko eta horien arazketa egiteko zerbitzuak derrigorrezkoak dira udalerriko finka guztietan, baldin eta horien fatxadak kalera, plazara edo bide publikora ematen badute eta estolderiarik balego eta sarearen eta finkaren artean 100,- metro baino gehiagorik ez balego, eta tasaren sortzapena gertatuko da, nahiz eta interesatuek sarerako hartunerik egin ez.

VIII. - AITORPENA, LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA

8. Artikulua.-

1.- Zergadunaren ordezkodiren subjektu pasiboek, tasaren subjektu pasiboen erroldan, formulatuko dituzte alta eta baje aitorpenak, finkaren titularitatean aldaketa gertatu den data eta hurrengo hilabete naturaleko azken egunaren arteko epealdian. Azken aitorpen horiek indarra izango dute, aipatu alta eta baje aitorpen horiek aurkezteko epea amaitu ostean, praktikatuko den lehen kitapena egiten denetik aurrera.

Errolda barruan lehendabizikoz, ofizioz, jasoko da, behin sarera lotzeko lizentzia ematen denean.

2.- Exijitu daitezkeen kuotak kitatu eta kobratzeko orduan, uraren horniketa eta kontsumoko errezibuek duten epealdi bera hartuko da kontuan eta kobrantzako epea ere bera izango da eta Ur Partzuergoak izapidetuko ditu.

IX.- XEDAPEN GEHIGARRIA **ADMINISTRAZIOEN ARTEKO ELKARRERAGINGARRITASUNA**

1. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak 28. artikuluan ezartzen duenez, dagoeneko administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administrazio egin dituen dokumentuak ez aurkezteko eskubidea dute interesdunek. Basauriko Udalaren zerbitzu/sail eskudunak elektronikoki kontsultatu edo bildu ahal izango ditu dokumentu horiek, datuen bitartekotza-plataformen edo horretarako gaitutako beste sistema elektronikoko batzuen bidez. Arrazoi teknikoak

direla eta elkarreragingarritasuna ezinezkoa bada, izapideak egiteko behar diren dokumentuak aurkezteko eskatu ahal izango zaio interesdunari.

2. Zilegi da datu pertsonalen tratamendua egitea, interes publikoaren aldeko eginkizun bat betetzean edo Basauriko Udalari emandako botere publikoak gauzatzean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1 e) artikuluan aurreikusitako baldintzetan. Datuak minimizatzeko printzipioarekin bat etorriz, datu egokiak, beharrezkoak eta ezinbestekoaren neurrira mugatuak bakarrik eskatuko dira, datu horiek tratatzeko helburuen arabera (DBEO, 5.1.c artikulua).

AMAIERAKO XEDAPENA

Ordenantza hau behin betiko onetsi da, eta egin zaizkion aldaketekin batera, 2008ko urtarrilaren 1ean indarrean sartuko da, eta indarrean egongo da, hori aldatu edo indargabetzea erabaki arte.

(Udalbatzaren erabakiz aldatua, 2008ko irailaren 25ean, 2012eko azaroaren 19ean, 2011eko azaroaren 11ean, 2017eko urriaren 26ean osoko bilkuran, 2018ko urriaren 25ean osoko bilkuran, 2019eko urriaren 30ean osoko bilkuran, 2021eko urriaren 28an osoko bilkuran eta 2022ko urriaren 27an osoko bilkuran.)